

2019ko lan-poltsak

Goi mailako teknikarien kidegoa Zuzenbidean lizentziatua aukera

A EREDUA

2019-07-07

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- 1 AUTONOMIA-ESTATUTUAREN ARABERA, ZER ESKUMEN DITU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK GIZARTE-SEGURANTZAREN ARLOAN?**
- 1a) Estatuaren oinarrizko legeria betearaztea, bakar-bakarrik.
 - 1b) Gizarte Segurantzaren arloko eskumen eskusiboa du Euskal Autonomia Erkidegoak.
 - 1c) Besteak beste, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa.
 - 1d) Autonomia-estatutuan ez da jasotzen Gizarte Segurantzaren arloko eskumenei buruzko aurreikuspenik.
- 2 ZER ORGANOREN BEREZKO ZEREGIN DA EUSKO LEGEBILTZARRARI EKONOMIAREN ETA FINANTZEN ARLOKO AHOLKUAK EMATEA?**
- 2a) Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Batzordearena.
 - 2b) Eusko Jaurlaritzan ekonomiaren eta ogasunaren arloko eskumena duen sailarena.
 - 2c) Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena.
 - 2d) Herri Dirubideen Euskal Kontseiluarena.
- 3 EUSKO JAURLARITZARI BURUZKO 7/1981 LEGEAREN ARABERA, HAUETAKO ZEIN DIRA ADMINISTRAZIOAREN GOI-KARGUDUN?**
- 3a) Sailburuak eta sailburuordeak bakarrik.
 - 3b) Sailburuordeak, zuzendariak eta konfiantzazko langileak.
 - 3c) Sailburuak, sailburuordeak eta konfiantzazko langileak.
 - 3d) Sailburuordeak eta zuzendariak.
- 4 7/1981 LEGEAK ZER DIOEN AINTZAT HARTUTA, EUSKO JAURLARITZAREN SAILEN EGITURA ETA ANTOLAKETARI BURUZ ZEIN BAIEZTAPEN DA ZUZENA?**
- 4a) Sailburu bakoitzak onesten ditu agindu bidez.
 - 4b) Gobernu-kontseiluak onesten ditu lehendakariak proposatuta.
 - 4c) Sailburu bakoitzak onesten ditu dekretu bidez.
 - 4d) Lehendakariak onesten ditu, dagokion sailburuak proposatuta.
- 5 27/1983 LEGEA. ESKUMENEN BANAKETARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**
- 5a) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunien eskumena da, Autonomia Estatuaren arabera autonomia-erkidegoari dagozkionak izanik, espresuki lurralde historikoetako foru-organoei esleitu ez zaizkien arloetako legeak egitea eta betearaztea.
 - 5b) Lurralde historikoetako foru-organoen eskumena da, Autonomia Estatuaren arabera autonomia-erkidegoari dagozkionak izanik, espresuki EAEko erakunde komunei esleitu ez zaizkien arloetako legeak egitea eta betearaztea.
 - 5c) Erakunde komunek ematen dituzten arauak gainerako beste edozeinen aurretik aplikatzen dira beti.
 - 5d) Lurralde historikoez ez dute ahal ikuskatzailerik administrazio-bidean, erakunde komunek emandako arauak betearaztea bakarrik dagokien arloetan.

- 6 EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO APIRILAREN 7KO 2/2016 LEGEAREN ARABERA, HAUETAKO ZEIN DIRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKI-ARAUEN PRINTZIO ZUZENTZAILAK?**
- 6a) Subsidiaritate-printzipioa eta finantza-nahikotasunaren printzipioa.
6b) Aniztasun politikoaren eta inpartzialtasunaren printzipioa.
6c) Gardentasun-printzipioa eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa.
6d) Autoantolaketaren eta herritarrekiko hurbiltasunaren printzipioa.
- 7 2/2016 LEGEAREN ARABERA, NOLA TRANSFERITU AHAL IZANGO ZAIZKIE TOKI-ERAKUNDEEI DAGOKIEN LURRALDE HISTORIKOAREN ESKUMEN PROPIOAK?**
- 7a) Lege baten bidez.
7b) Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez.
7c) Foru-arau baten bidez.
7d) Foru Dekretu baten bidez.
- 8 12/2002 LEGEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREKIKO EKONOMIA ITUNA ONARTZEN DUENA. OSATU ESALDI HAU AUKERA ZUZENA HAUTATUTA: *EUSKADIK ESTATUARI EGINDAKO EKARPENA KUPO GLOBAL BAT IZANGO DA, ETA KUPO HORI LURRALDE HISTORIKO BAKOITZARI DAGOKIONAK OSATUKO DU.***
- 8a) Estatuaren aurrekontu orokorrek izan dezaketen defizitaren zati egozgarriaren parte baten konpentsazioa da kupoa.
8b) Tributu itundugabeen zati egozgarriaren parte baten konpentsazioa da kupoa.
8c) Estatuaren Administrazio Orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoan ematen dituen zerbitzu guztien konpentsazioa da kupoa.
8d) Euskal Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen Estatuaren zama guztiei dagokien ekarpena da kupoa.
- 9 12/2002 LEGEA. HAUETAKO ZEIN FAKTORE DA GARRANTZITSUA KUPOA ZEHAZTEKO?**
- 9a) Lurralde historikoetako populazioa.
9b) Lurralde historiko bakoitzean aurreko bost ekitaldietan izandako diru-bilketa.
9c) Lurralde historikoetako errenta Estatukoarekin alderatuta.
9d) Aurreko bost ekitaldietan biztanleko izan den gastu publikoa.
- 10 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE-ANTOLAMENDUA: ZER KATEGORIAREN BARRUAN DAUDE SAILKATUTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MENDEKO SOZIALTATE PUBLIKOAK?**
- 10a) Administrazio Orokorra.
10b) Sektore publikoa.
10c) Administrazio Instituzionala.
10d) Ez dira Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde-antolaketan sartzen.

11 URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN 2.1. ARTIKULUAN XEDATZEN DENAREN ARABERA, LEGE HORI SEKTORE PUBLIKOARI APLIKATZEN ZAIO. SEKTORE HORRETAN SARTZEN DIRA:

- 11a) Estatuaren Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoetako administrazioak.
- 11b) Estatuako Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
- 11c) Estatuaren Administrazio Orokorra eta sektore publiko instituzionala.
- 11d) Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak eta toki-administrazioa osatzen duten entitateak.

12 URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN 6.2. ARTIKULUAN XEDATZEN DENAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO GUZTI-GUZTIEN AHALORDETZEEN ERREGISTRO ELEKTRONIKO OROKORREK ETA PARTIKULARREK NOLAKOAK IZAN BEHAR DUTE?

- 12a) Elkarrengarritasun osoa izan behar dute beren artean.
- 12b) Isilpekoak izan behar dute eta elkarrekiko konexioen kontra babestuta egon behar dute.
- 12c) Publikoak izan behar dute, informatikoki bateragarri diren kontuan hartu gabe.
- 12d) Doakoak izan behar dute, legeak espresuki besterik xedatu ezean.

13 URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN 58. ARTIKULUAREN ARABERA, PROZEDURAK OFIZIOZ HASIKO DIRA:

- 13a) Eskumena duen organoak bere ekimenez hala erabakitzen badu bakarrik.
- 13b) Eskumena duen organoak hala erabakitzen badu bakarrik, goragoko agindu batek hala adierazi diolako.
- 13c) Eskumena duen organoak hala erabakita bakar-bakarrik, izan bere ekimenez edo izan goragoko agindu baten indarrez, eta beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz.
- 13d) Eskumena duen organoak hala erabakita, izan bere ekimenez edo izan goragoko agindu baten indarrez, beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz edo salaketa baten ondorioz.

14 URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN 82.4. ARTIKULUAK ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA EGIN GABE UTZ DAITEKEELA AURREIKUSTEN DU; ZEIN KASUTAN?

- 14a) Egitateen lekukorik ez badago.
- 14b) Inolako peritu-frogarik egin ez bada.
- 14c) Prozeduran ez bada azaltzen eta ebazpenean ez bada kontuan hartu interesdunak azal dutako egitate, alegazio eta frogak besterik.
- 14d) Interesdun jakin bat ez dagoenean bakar-bakarrik.

15 URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN 124.2. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ZENBAT DENBORA DU GEHIENEZ ADMINISTRAZIOAK, AUKERAKO BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA EBATZI ETA JAKINARAZTEKO?

- 15a) Bi hilabete.
- 15b) Hamabost egun.
- 15c) Hogei egun.
- 15d) Hilabete.

- 16 URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN 107.3. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, NOIZ IRAUNGIKO DA PROZEDURA, PROZEDURA HASI ETA EPE HORRETAN EGINTZA DEUSEZTAGARRIA KALTEGARRI DEKLARATU EZ BADA?**
- 16a) Hiru hilabete igarotakoan
16b) Bi hilabete igarotakoan.
16c) Hilabete igarotakoan.
16d) Sei hilabete igarotakoan.
- 17 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA ARAUTZEN DUEN UZTAILAREN 13KO 29/1998 LEGEAN AURREIKUSI GABEKOETARAKO, ZEIN LEGE IZANGO DA ORDEZTAILEA?**
- 17a) Prozedura Zibilaren Legea.
17b) Prozedura Kriminalaren Legea.
17c) Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen Legea.
17d) Pertsonaren Oinarrizko Eskubideen Babes Jurisdikzionalari buruzko Legea.
- 18 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA ARAUTZEN DUEN UZTAILAREN 13KO 29/1998 LEGEAREN 103.1. ARTIKULUAREN ARABERA, NORI DAGOKIO EPAI ETA GAINONTZEKO EBAZPEN JUDIZIAL GUZTIAK EXEKUTARAZTEKO AHALA?**
- 18a) Kondenatu diren administrazio publikoei bakarrik.
18b) Absolbitu diren administrazio publikoei bakarrik.
18c) Epai horiek mesede egin dietenei bakarrik.
18d) Jurisdikzio-ordena honetako epaitegi eta auzitegiek bakarrik, eta auziaz lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean arduratu denari dagokio ahal hori baliatzea.
- 19 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA ARAUTZEN DUEN UZTAILAREN 13KO 29/1998 LEGEAREN 81.2.B) ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN EPAITEGIEK ETA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN EPAITEGI ZENTRALEK PERTSONAREN OINARRIZKO ESKUBIDEAK BABESTEKO PROZEDURAN EMANDAKO EPAIEI:**
- 19a) ezin izango zaie apelazio-errekurtsorik jarri.
19b) apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango zaie beti
19c) apelatu egin daitezke, baldin eta 30.000 eurotik gorako kopuru bat ezarri bada.
19d) apelatu egin daitezke baldin, eta 18.000 eurotik gorako kopuru bat ezarri bada.
- 20 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA ARAUTZEN DUEN UZTAILAREN 13KO 29/1998 LEGEAREN 74.1. ARTIKULUAREN ARABERA, NOIZ EGIN DEZAKE ATZERA ERREKURTSO-JARTZAILEAK?**
- 20a) Froga burutu ostean.
20b) Demandari erantzuten ostean.
20c) Epai eman aurretik, edozein unetan.
20d) Epai eman ostean.

- 21 ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEEN ERANTZUKIZUN PENALA ESKATZEAK BIDERATZEN ARI DIREN ONDARE-ERANTZUKIZUNA AITORTZEKO PROZEDURAK ETENGO DITU; ZEIN KASUTAN?**
- 21a) Sekula ez.
21b) Prozedura penalaren instrukzio-egileak hala eskatzen badu bakarrik, ne bis in idem printzipioa urratu daitekeela pentsatzen duelako.
21c) Egitateak jurisdikzio-ordena penalean zehaztea beharrezkoa denean ondare-erantzukizuna finkatzeko.
21d) Kasu guztietan.
- 22 ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ZERBITZURA ARI DIREN AGINTARI ETA LANGILEEI ONDARE-ERANTZUKIZUNA ESKATZEARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**
- 22a) Administrazio publikoak aurrez kalte-ordaina eman beharko die lesionatuei.
22b) Ofizioz edo alderdi batek eskatuta egingo da.
22c) Agintarien edo administrazioako langileen jardunean doloa egon bada bakarrik eska daiteke.
22d) Dagokion administrazioak eskatu behar du, badin eta bere agintari edo langileek erru edo zabarkeriaz jardun badute.
- 23 JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN FUNTZIONAMENDUA DELA-ETA ESTATUAK IZAN DEZAKEEN ONDARE-ERANTZUKIZUNA ZEIN LEGEK ARAUTUKO DU?**
- 23a) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak.
23b) Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak.
23c) Legeria penalak.
23d) Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak.
- 24 LEGE-MAILAKO ARAU BATEAN EZARRITAKO BETEBEHARRAK PERTSONA BATEK BAINO GEHIAGOK BETE BEHAR BADITUZTE ELKARREKIN, NOLA ERANTZUN BEHAR DIE PERTSONA HORIEK BETEBEHAR HORIEKIKO EGINDAKO ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOEI ETA EZARRITAKO ZEHAPENEI?**
- 24a) Modu indibidualizatuan, erantzule bakoitzak duen erruduntasunaren arabera.
24b) Modu indibidualizatuan, erantzule bakoitzak izan duen parte-hartzearen arabera
24c) Modu solidarioan, zehapena diruzkoa ez bada.
24d) Modu solidarioan, zehapena diruzkoa bada.
- 25 SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOAREN 40/2015 LEGEKO ADMINISTRAZIOAREN ZEHATZEKO AHALAREN PRINTZIPIOEI BURUZKO XEDAPENAK EZ DIRA APLIKATUKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZEHATZEKO AHALA BALIATZEN DUTENEAN HAIEKIKO LOTURA HAUEK DITUZTENEKIN:**
- 25a) Beren zerbitzuko langileekin, enplegu-harremanaren izaera juridikoa edonolakoa dela ere.
25b) Pertsona juridikoekin.
25c) Nortasun juridikorik gabeko batasun eta entitateekin, lege batek jarduteko gaitasuna aitortzen dienean
25d) Administrazioarekin sektore publikoko kontratuen legeriak araututako harremanen bidezko lotura dutenekin.

26 NOIZ HASIKO DA ZENBATZEN ADMINISTRAZIO-ZEHAPENEN PRESKRIPZIO-EPEA?

- 26a) Arau-haustea egin zen egunaren biharamunetik, edo, arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, jokaera arau-hauslea amaitu zen unetik.
- 26b) Zehapen-espeditentea hasi dela jakinarazi zen egunaren biharamunetik.
- 26c) Egindako arau-haustearengatik zehapena ezarri zen egunaren biharamunetik.
- 26d) Zehapena ezartzen duen ebazpena betearazi ahal den egunaren biharamunetik.

27 HONAKO HAUEN ARTEAN, ZEINTZUK DUTE HITZARMEN IZAERA?

- 27a) Administrazioek eta gainerako alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen duten akordioak.
- 27b) Ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.
- 27c) Administrazio publikoen artean edo haien mendeko erakundeekin sinatzen diren akordioak xedetzat kontratuen berezko prestazioak ematea badute.
- 27d) Aurreko guztiak hitzarmentzat jotzen ditu indarrean dagoen legeriak.

28 HITZARMENAREN INDARRALDIARI BURUZ, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- 28a) Hitzarmenen interes publikoaren arabera, iraunaldi zehaztua izan dezakete edo zehaztu gabeko epe baterako egin, bestela; hala ere, indarrean dagoen bitartean aldeetako edozeinek denuntziatzeko aukera izango du.
- 28b) Hitzarmenak luzatu egin daitezke, gehienez ere beste lau urterako.
- 28c) Hitzarmenak luzatu egin daitezke, gehienez ere hasieran izenpetutako epe berbererako.
- 28d) Hitzarmenak luzatzeko izenpetzaileen gehiengoaren adostasuna behar da, salbu eta bi izenpetzaile dituzten hitzarmenen kasuan, zeinetan bi aldeek adostasuna behar baita hitzarmena luzatzeko.

29 ADMINISTRAZIO-KONTRATUEI BURUZ, ZEIN DA ERANTZUN OKERRA?

- 29a) Ezin dira zerbitzu-kontratuen objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.
- 29b) Zerbitzu-kontratuak emakidadunari eragiketa-arriskua eskualdatzea ekarriko du berekin.
- 29c) Zerbitzu-emakidako kontratuen ordain gisa kontratuaren objektu diren zerbitzuak ustiatzeko eskubidea izango du kontratistak, edo eskubide hori izan eta harekin batera prezio bat jasoko du.
- 29d) Zerbitzu-emakidako kontratuak emakidadunari eragiketa-arriskua eskualdatzea ekarriko du berekin.

30 ERREGULAZIO HARMONIZATUKO ADMINISTRAZIO-KONTRATUEI BURUZ, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- 30a) Erregulazio harmonizatuko administrazio-kontratuak dira administrazio publiko batek egiten dituenak, baldin eta helburua prokuradore batek edo abokatu batek bezero bat ordezkatzeta eta haren legezko defentsa egitea badute.
- 30b) Administrazio-kontratu bat erregulazio harmonizatukoa den zehazteko atalase ekonomikoa kontratuaren prezioa da, eta ez balio zenbatetsia.
- 30c) Administrazio-kontratu bat erregulazio harmonizatukoa den zehazteko atalase ekonomikoa balio zenbatetsia da, eta ez kontratuaren prezioa.
- 30d) Erregulazio harmonizatuko kontratu diruz lagunduak bakarrik izan daitezke obra-kontratuak, zerbitzu-kontratuak eta hornidura-kontratuak..

31 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOKO AUZITEGIEI BURUZ, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- 31a) Ez dute lege mailako xedapenak kontrolatzeko eskumenik.
- 31b) Ez dute lege-mailako erabakiak kontrolatzeko eskumenik, lege-dekretu eta legegintzako dekretuak izan ezik, zeinak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak kontrola ditzakeen alderdi guztietan.
- 31c) Ez dute lege-mailako erabakiak kontrolatzeko eskumenik, legegintzako dekretuak eta xedapen orokorrak izan ezik, zeinak zuzenbidearen arabera diren adieraztea baitagokie kasu guztietan
- 31d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

32 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA:

- 32a) Espainiako Konstituzioaren 82.2. artikularekin bat eginez, oinarri-legeak garatzeko ematen diren testu artikulatuak eztabaidatu eta bozkatu egin beharko dira Diputatuen Kongresuan haiek aldarrikatu eta hurrengo hogeita hamar egunetan. Kongresuak, epe horren barruan, testu artikulatuaren baliozkotze edo indargabetzeari buruzko erabakia hartu beharko du beren beregi.
- 32b) Aparteko eta presazko beharrez dagoenetan, Gobernuak behin-behineko lege-xedapenak eman ditzake, lege-dekretuen forma hartuz; horiek ezingo dute eraginik sortu estatuaren oinarriko erakundeei buruzko antolamenduan, I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskundeei buruzko zuzenbide orokorrean ere.
- 32c) Konstituzioak bakar-bakarrik Ministro Kontseiluari onartzen dio lege-dekretuak emateko ahalmena, eta Konstituzioaren testuak espresuki baztertzen die ahal hori autonomia-erkidegoen gobernu-organoei.
- 32d) Legegintzarako eskuordetza ematen duten oinarri-legeek atzeraeraginezko arauak egiteko ahalmena eman dezakete, eskubide indibidualen kontrako edo haiek mugatzeko xedapen zehatzaileak diren kasuan izan ezik.

33 HAUETAKO BAKARRA DA ZUZENA. ZEIN?

- 33a) Forma-akats huts batengatik erregelamendua legez kontrakoa izateak deuseztagarri bihurtzen du.
- 33b) 39/2015 Legeak lege-erreserbaren nahiz erregelamendu-erreserbaren printzipioak aurreikusten ditu. Hala, aurreikusten du legeek ezingo dituztela erregulatu Konstituzioak edo autonomia-estatutuek Ministro Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako gobernu-kontseiluen eskumenekotzat jotzen dituzten gaiak. Era berean ezartzen du administrazioaren erregelamenduek eta xedapenek ezin dutela erregulatu Konstituzioak edo autonomia-estatutuek Gorte Nagusien edo autonomia-erkidegoetako legebiltzarren eskumenekotzat jotako gairik.
- 33c) Administrazio-ebazpen partikularrek ezin dute urratu xedapen orokor batean ezarritakoa, xedapen orokorra eman zuenaren maila bereko edo hierarkian goragoko organo batenak izan ezean.
- 33d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

34 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA:

- 34a) Erregelamendu-xedapenei gora jotzeko administrazio-errekurtsoa eta aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakieke.
- 34b) 39/2015 Legeak erabateko deuseztasuna izateko kausak dituzten administrazio-egintzak ofizioz berrikusteko prozedura soilik aurreikusten du, baina ez kausa horiek gertatzen diren administrazio-xedapenak.
- 34c) Xedapen orokor bat zuzenean ez aurkaratu izateak edo haren kontra jarritako errekurtsu bat ezetsi izateak eragotzi egiten du aplikazio-egintza bat aurkaratzea, zeina xedapen hori zuzenbidearen arabera ez izatean funtsatzen baita.
- 34d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

35 ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEAREN MENDE DAUDEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EGINTZAK BEREHALA BETEARAZTEKOAK IZANGO DIRA, SALBUESPENAK SALBUESPEN. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA.

- 35a) Edozein errekurso aurkezteak ez du etengo aurkaratutako egintzaren betearazpena, xedapenen batean bestelakorik adierazten ez bada.
- 35b) Egintza baten kontrako administrazio-errekurtoa jartzen bada, errekurtoa ebazteko eskumena duen organoak eten ahal izango du aurkaratutako egintza, ofizioz edo errekurto-jartzaileak eskaturik, aurretik modu aski arrazoituan haztatuta, alde batetik, eteteak zer-nolako kalteak eragin diezazkiekeen interes publikoari edo hirugarren batzuei, eta, bestetik, errekurto-jartzaileari zer kalte egiten zaion egintza errekurrituaren berehalako efikaziaren ondorioz, ikusten bada betearazpenak kalte erreparaezin edo erreparagaitzak ekar ditzakeela.
- 35c) Ez da berehala betearaztekoa izango zehapen-prozedura baten ebazpena, administrazio-bideko errekurtsoren bat jar dakioketena, aukerako berraztertze-errekurtoa barne.
- 35d) Administrazio-bidea amaituta ere luzatu ahal izango da etena, baldin eta, interesdunak aurrez eskaturik, kautela-neurriak hartuta badaude eta neurri horien ondorioak administrazioarekiko auzibidera ere zabaltzen badira. Interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa jartzen badu prozesuaren xede den egintza eten dadila eskatzeko, eutsi egingo zaio administrazio-bidean erabaki den etenari administrazioarekiko auzien prozesua amaitu arte.

36 40/2015 LEGEAK HAU DIO ESKUMENARI BURUZ: ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA.

- 36a) Xedapen baten bitartez eskumen bat administrazio bati esleitzen bazaio zein organok gauzatu behar duen zehaztu gabe, ulertuko da goiko organo eskudunarena dela espedienteak instruitu eta ebazteko ahalmena.
- 36b) Administrazio publikoetako organoek beste organo batzuei delegatu diezazkiekete beren eskumenak, soilik organo horiek administrazio berekoak badira eta hierarkikoki bata bestearen mendekoak badira, edo administrazio horiei lotutako edo administrazio horien mendean dauden organismo publikoak edo zuzenbide publikoko entitateak badira.
- 36c) Organo gorenek berenganatu egin dezakete beren mendeko organoek ebatzi ohi dituzten edo delegazio bidez ebatzi beharreko gai baten edo batzuen ardura, arrazoi teknikoek, ekonomikoek, juridikoek edota gizartearen edo lurraldearen aldetikokoak hala eskatzen dutenean. Hierarkian mendeko ez diren organoei eskumenak delegatuz gero, organo delegatzaileak bakarrik beregana dezake gairen baten ardura.
- 36d) Eskumen-delegatzeak, kudeaketa-gomendioak, sinadura delegatzea eta ordezkotza Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegokoan edo probintziakoan argitaratu behar dira, kontuan hartuz zein administratibotakoa den eskumenaren organo titularra eta zein den organo horren eskumenen lurralde-eremua.

37 40/2015 LEGEAREN ARABERA, AURREIKUSPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 37a) Administrazio publikoetako agintari edo langileek abstenitzeko arrazoiren bat izanik jarduteak nahitaez ekarriko du parte hartu duten egintzak baliogabeak izatea.
- 37b) Prozeduraren izapidetzearen edozein unetan eska dezakete interesdunek errekusazioa. Errekusazioa idatziz aurkeztuko da, zein arrazoitan oinarritzen den adierazita
- 37c) Errekusatuen nagusi hurrenari dagokio interesdunek alegatutako errekusazio-arrazoiei buruz erabakitzea.
- 37d) Errekusazioaren arloan hartutako ebazpenaren kontra ezin jarriko da errekurtsorik, hargatik eragotzi gabe errekusazioa alegatzeko aukera, prozedurari amaiera ematen dion egintzaren aurka egokitzen den errekurtoa aurkezterakoan.

- 38 39/2015 LEGEAREN ARABERA, AURREIKUSPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?**
- 38a) Ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epea ebazpen espresurik gabe igarotzeak zilegitasuna ematen die interesdunei administrazio-isiltasunez baietsizat jotzeko, non eta ez duen kontrakoa agintzen lege-mailako araturen batek edo Espainian aplikatzekoa den Europar Batasuneko zuzenbideko edo nazioarteko zuzenbideko araturen batek.
- 38b) Isiltasunak balio ezleslea izango du, besteak beste Konstituzioaren 29. artikulua aipatzen duen eske-eskubideaz baliatzeari buruzko prozeduretan.
- 38c) Administrazio-isiltasunez baiesten den kasuetan, egintzaren ondorengo ebazpen espresua hura berresteko baino ezin da izan.
- 38d) Egintza baten aurkako administrazio-errekurtsoa jartzen denean, aurkaratutako egintzaren betearazpena eten dela ulertuko da baldin eta, hilabete igaro delarik egintza eteteko eskaera erabakitze eskumena duen administrazioaren edo organoaren erregistro elektronikoan sartu denetik, errekurtsioa ebazteko eskumena duen organismoak ez badu hari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi.
- 39 39/2015 LEGEAREN ARABERA, AURREIKUSPEN HAUETATIK BAKARRA DA ZUZENA; ZEIN?**
- 39a) Erabat deusezak izango dira Konstituzioan onartutako edozein eskubide eta askatasuni kalte egiten dieten egintzak.
- 39b) Erabat deusezak izango dira gaiagatik edo lurraldeagatik organo nabarmen eskumengaberen batek ematen dituen egintzak.
- 39c) Erabat deusezak diren egintzak baliozkotu ahal izango ditu Administrazioak, haien akatsak zuzenduz.
- 39d) Erabat deusezak dira aginte-desbideratzean erortzen diren administrazio-egintzak.
- 40 39/2015 LEGEAREN ARABERA, AURREIKUSPEN HAUETAKO BAT OKERRA DA; ZEIN?**
- 40a) Ez dira arrazoitu behar ahal diskrezionalak baliatuz emandako egintzak.
- 40b) Arrazoitu egin behar dira egintzak eteteko erabakiak.
- 40c) Arrazoitu egin behar dira epeak luzatzeko erabakiak.
- 40d) Egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adierazi behar dira administrazio-egintzen arrazoitzean.
- 41 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN, BEREN ESKUMENEN ESPARRUAN, ZER ARGITARATUKO DUTE?**
- 41a) Beren ekimenekoak diren lege-aurreproiektuak eta legegintza-dekretuen proiektuak, hala eskatzen dutenean aholku-organoen nahitaezko irizpenek.
- 41b) Partikularrek egindako kontsulten erantzunak, zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
- 41c) Beren ekimenekoak diren erregelamendu-proiektuetan irizpenak eskatzea nahitaezkoa denean, aholku-organoei irizpenak eskatu aurretik argitaratuko dira erregelamendu-proiektuak.
- 41d) Dena delako gaiagatik, eskumena duen organoak haztatutako interes publikoa duten dokumentuak.

42 INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEAZ BALIATZEARI BURUZ:

- 42a) Ez dira izapidetzeko onartuko, hedatzeko, aldez aurretik, berriro prestatzea behar duten informazioari buruzko eskubideak.
- 42b) Informazio publikoa eskuratzeko baimena emateko edo ez emateko ebazpena, gehienez, hilabeteko epean jakinarazi behar die ebazpen hori emateko eskumena duen organoak eskatzaileari, bai eta eragiten zaien besteei ere, hala eskatzen badute, eta hala egiten ez bada eskera onartutzat joko da.
- 42c) Informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke hierarkian goragoko organoaren aurrean.
- 42d) Eskatzaileak arrazoitu egin beharko du informazioa zergatik eskuratu nahi duen, eta hala egiten ez badu ezetsi egin zaio eskaera.

43 ADMINISTRAZIOAREN ARAUDIAN ETA JARDUERAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK DIRA:

- 43a) Enplegu publikoaren hautapen-prozesuak erregulatzen dituzten arauak klausula bat izatea administrazioaren jardueraren kidego, eskala, maila eta kategorietan emakumeei lehentasuna ematen diena, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, eta kidego, maila, eskala eta kategoria horietan emakumeak % 20 baino gutxiago badira.
- 43b) Auzitegi, epaimahai edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 50eko ordezkari izatea, zenbat kidek osatzen duten alde batera utzita.
- 43c) Enplegu publikoaren hautapen-prozesuak erregulatzen dituzten arauak klausula bat izatea, emakumeei beti lehentasuna emango diena, trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago.
- 43d) Lau kide baino gehiago dituzten auzitegi, epaimahai edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkari izatea.

44 GENEROAREN ARABERAKO ERAGINA AURRETIAZ EBALUATZEARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA ZUZENA?

- 44a) Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak onetsiko ditu ebaluazioa egitetik salbuetsita dauden administrazio-arauak edo -egintzak.
- 44b) Aurretiko ebaluazioa eskumena duen organoak egin behar du gehienez ere hilabeteko epean.
- 44c) Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak proposatuko ditu generoaren arabeko eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko zer arau edo gidalerro jarraitu behar diren.
- 44d) Arau bat bultzatu nahi duen administrazio-organok, behin araua egin ostean, gaian espezializatutako saileko organoari bidali behar dio araua, proposamen horrek kolektibo gisa emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eragina ebaluatzeko.

45 KONFIDENTZIALTASUN-EGINBEHARRA DATU PERTSONALEN BABESEAN:

- 45a) Datuen tratamendurako arduradunek eta eragileek soilik bete behar dute.
- 45b) Aipatutako eginbehar horrek, hala zehazten den kasuetan, indarrean jarrai dezake nahiz eta betebeharpekoaren eta tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen arteko harremana amaitua izan.
- 45c) Konfidentzialtasun-eginbeharrak sekretu profesionalaren betebeharra ordeztuko du, aplikagarri zaion araudiaren arabera.
- 45d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

46 DATU PERTSONALAK BABESTEKO ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKO AZAROAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN II. TITULUAN JASO DIREN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZ:

- 46a) Irispiderako eskubidea egikaritzea errepikakorra dela ulertuko da bi urteko tartean behin baino gehiagotan baliatu bada, horretarako arrazoi legitimorik egon gabe.
- 46b) Eramangarritasun-eskubidea 2005/785 (EB) Erregelamenduak 76. artikuluan ezarritakoaren arabera egikarituko da.
- 46c) Datu pertsonalak ukituarengandik jasotzen badira, tratamenduaren arduradunak eman behar dion oinarrizko informazioan, gutxienez, besteak beste, tratamenduaren helburua zein den jaso behar da.
- 46d) Ukituak irispiderako eskubidea egikaritu dezake berak aukeratutako baliabidearen bidez, eta erabaki horrek ez dio kostu gehigarririk ekarriko.

47 ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN URRIAREN 30EKO 5/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ZUZENA?

- 47a) Zuzendaritzako langile profesionalak merezimendu- eta gaitasun-printzipioen eta egokitasun-irizpideen arabera izendatuko dira, eta izendapen hori publikitate eta lehia bermatzen duten prozeduren bidez gauzatuko da.
- 47b) Behin-behineko langileei karrerako funtzionarioen araubide orokorra aplikatuko zaie eta haien jarduna merezimendu gisa balioetsiko da funtzio publikora iristeko.
- 47c) Bitarteko funtzionarioa aldi baterako programak betetzeko izendatu daiteke; programa horiek ezin izango dute urtebete baino gehiagoko iraupena izan.
- 47d) Lan-kontratudun langileek bete ditzakete ahal publikoak baliatzeko jardunetan zuzenean nahiz zeharka parte hartzea eskatzen duten eginkizunak, betiere, autonomia erkidegoek oinarrizko legea garatzeko emandako legeetan jasotako egoeretan.

48 ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN URRIAREN 30EKO 5/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUAK XEDATZEN DU:

- 48a) Bitarteko funtzionarioek norberaren interesa dela-eta borondatezko eszedentzia lortzeko aukera izango dute, baldin eta, aurre-aurreko bi urteetan gutxienez, administrazio publikoetako edozeinetan modu efektiboan zerbitzua eman badute.
- 48b) Autonomia-erkidegoek, transferitutako funtzionarioak bere funtzionariotzat hartzen dituztenean, beste zenbait eskubideren artean, funtzionarioen jatorrizko kidegoko edo eskalako taldea edo azpitaldea errespetatu beharko dute.
- 48c) Prozedura judizial zein diziplina-espediente bat tramitatzeak, besteak beste, funtzionarioaren behin-behineko eginkizun-etenaldia ekarriko du nahitaez.
- 48d) Genero-indarkeriaren biktima diren funtzionario emakumeek eszedentzia lortzeko nahikoa izango dute edozein administrazio publikotan gutxienez aurreko urte osoan zerbitzu efektiboa ematen aritu izana.

49 DIZIPLINA-ARAUBIDEARI DAGOKIONEZ, ZER AURREIKUSTEN DU ESPRESUKI ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN URRIAREN 30EKO 5/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUAK?

- 49a) Falta astun bat dela bateraezintasun-arauak ez betetzea, horren ondorioz bateraezintasun-egoera bat sortzen bada, eta bi urteren buruan preskribatzen dela.
- 49b) Zehapen gisa nahitaezko lekualdatzea ezartzea, bizileku-herria aldatuta, gutxienez sei hilabeterako.
- 49c) Behin-behineko etendura duen funtzionarioak ez duela inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango etenaldi horretan.
- 49d) Zerbitzua bertan behera uztea falta oso astuna dela, eta falta oso astunak hiru urteren buruan preskribatzen direla.

50 EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIEI DAGOKIENEZ, ZEIN DA ZUZENA?

- 50a) Destino-osagarriaren zenbatekoa, zeina betetzen den lanpostu-mailari baitagokio, autonomia-erkidegoaren aurrekontu orokorretan ezarriko da urtero.
- 50b) Funtzionario publikoen ordainsari osagarrien parte dira: destino-osagarria, berariazko osagarria, produktibitate-osagarria, ez ohiko zerbitzuengatiko gain sariak (gratifikazioak) eta kalte-ordainak.
- 50c) A taldeko funtzionarioen hirurtekoen zenbatekoa ez da D taldekoentzat ezarrita dagoena baino hiru aldiz handiagoa izango, aurreikusitako salbuespenak salbuespen.
- 50d) Berariazko osagarriak, besteak beste, funtzionarioak bere lanpostuan jartzen duen ardura eta ekina ordaintzen ditu.

ERRESERBAKO GALDERAK

51 ADMINISTRAZIO AHOLKU-EMALEA. ZER JARDUERA GERATZEN DA EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN JARDUERA-EREMUTIK AT?

- 51a) Toki-administrazioaren jarduerak.
- 51b) Lurralde historikoetako foru-erakundearen jarduerak.
- 51c) Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduerak.
- 51d) Zuzenbide pribatuko erakunde publikoen jarduerak.

52 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA ARAUTZEN DUEN UZTAILAREN 13KO 29/1998 LEGEAREN 3.B) ARTIKULUAREN ARABERA, ZER EZ DAGOKIO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOARI?

- 52a) Oinarrizko eskubideen babes juridikzionala.
- 52b) Diziplina militarri buruzko auzi-errekurtsoa.
- 52c) Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna.
- 52d) Administrazio-kontratua.

53 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK ESLEITZEKO PRINTZIOPIO GIDARIEI BURUZ:

- 53a) Kontratazio-organoek une oro zainduko dute adjudikazio-prozedura, lehia askea babeste aldera.
- 53b) Ezingo da mugatu parte-hartzea forma juridikoarengatik edo kontratazioko irabazi asmoarengatik, ezta Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotako erakundeentzat erreserbatutako kontratuetan ere.
- 53c) Administrazio-kontratuak esleitzeko printzipio gidariak dira: berdintasun, bizkortasun, gardentasun eta lehia askearen printzipioak.
- 53d) Administrazio-kontratuak esleitzeko printzipio gidariak dira: berdintasun, austeritate, gardentasun eta lehia askearen printzipioak.

54 NAHITAEZKO BETEARAZPENARI BURUZ HAUETAKO ZEIN ERANTZUN DA OKERRA 39/2015 LEGEAREN ARABERA?

- 54a) 39/2015 Legean aurreikusten den nahitaez betearazteko bitartekoetako bat da ukituaren egoitzan sar daitekeela titularraren baimena edo epailearen baimena izan beharrik gabe.
- 54b) Betearazpen subsidiarioa erabiltzeko aukera izango da egintza guztiz pertsonalak ez izateagatik betebeharra duenaz beste norbaitek egin ditzakeenean. Kasu horretan administrazio publikoek egingo dute egintza, beren kabuz edo izendatzen dituzten pertsonen bitartez, betebeharra duenaren kontura.
- 54c) Hertsatzeko isuna ez dago lotua ezar daitezkeen izaera bereko zehapenekin, eta bateragarria da haiekin.
- 54d) Ez da izapidetzeko onartuko edukitza-akziorik administrazio-organoek beren eskumeneren eremuan eta legez ezarritako prozedurarekin bat etorritik egindako jarduketaren aurka.

55 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO UZTAILAREN 6KO 6/1989 LEGEAN ZER JASOTZEN DA LANPOSTU-ZERRENDEI BURUZ?

- 55a) Lanpostu-zerrendetan aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak sartu beharko dira, eta hala ezartzen den kasuetan, behin-behineko langileak eta lan-itunpekoak ere sar daitezke.
- 55b) Lanpostuen zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko dira lanpostuak.
- 55c) Hizkuntza-eskakizuna ere eduki behar dute, baldin eta nahitaezko data esleiturik badute.
- 55d) Funtzionarioentzat gordetako lanpostuak ezingo dituzte inola ere beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioek bete.

Bolsas de Trabajo 2019

Cuerpo Superior Facultativo Opción Licenciatura en Derecho

MODELO A

07-07-2019

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- 1 SEGÚN EL ESTATUTO DE AUTONOMÍA ¿QUÉ COMPETENCIAS CORRESPONDEN AL PAÍS VASCO EN MATERIA DE SEGURIDAD SOCIAL?**
- 1a) Únicamente la ejecución de la legislación básica del Estado.
 - 1b) Al País Vasco le corresponde la competencia exclusiva en materia de Seguridad Social.
 - 1c) Entre otras competencias, le corresponde la gestión del régimen económico de la Seguridad Social.
 - 1d) El Estatuto de Autonomía no contiene previsiones sobre las competencias en materia de Seguridad Social.
- 2 ¿QUÉ ÓRGANO TIENE ENTRE SUS FUNCIONES PROPIAS EL ASESORAMIENTO AL PARLAMENTO VASCO EN MATERIA ECONÓMICO-FINANCIERA?**
- 2a) La Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos.
 - 2b) El Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de economía y hacienda.
 - 2c) El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
 - 2d) El Consejo Vasco de Finanzas Públicas.
- 3 SEGÚN LA LEY 7/1981, SOBRE LEY DE GOBIERNO ¿CUÁLES DE LOS SIGUIENTES TIENEN CONSIDERACIÓN DE ALTOS CARGOS DE LA ADMINISTRACIÓN?**
- 3a) Solamente los Consejeros y Vice-consejeros.
 - 3b) Vice-consejeros, Directores y personal de confianza.
 - 3c) Consejeros, Vice-consejeros y personal de confianza.
 - 3d) Vice-consejeros y Directores.
- 4 EN BASE A LA LEY 7/1981, SEÑALAR LA AFIRMACIÓN CORRECTA SOBRE LA ESTRUCTURA Y ORGANIZACIÓN DE LOS DEPARTAMENTOS DEL GOBIERNO VASCO.**
- 4a) La aprueba cada Consejero mediante Orden.
 - 4b) La aprueba el Consejo de Gobierno a propuesta del Lehendakari.
 - 4c) La aprueba cada Consejero mediante Decreto.
 - 4d) La aprueba el Lehendakari a propuesta del respectivo Consejero.
- 5 LEY 27/1983. SEÑALAR LA AFIRMACIÓN CORRECTA RESPECTO A LA DISTRIBUCIÓN DE COMPETENCIAS.**
- 5a) Es competencia de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma la legislación y ejecución en aquellas materias que, correspondiendo a la Comunidad Autónoma según el Estatuto de Autonomía, no se atribuyan expresamente a los Órganos Forales de los Territorios Históricos.
 - 5b) Es competencia de los Órganos Forales de los Territorios Históricos. la legislación y ejecución en aquellas materias que, correspondiendo a la Comunidad Autónoma según el Estatuto de Autonomía, no se atribuyan expresamente a las Instituciones Comunes.
 - 5c) Las normas dictadas por las Instituciones Comunes se aplican siempre con preferencia a cualquier otra.
 - 5d) Los Territorios Históricos no tienen potestad revisora en vía administrativa en aquellas materias en que les corresponde únicamente la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes.

- 6 SEGÚN LA LEY 2/2016, DE 7 DE ABRIL, DE INSTITUCIONES LOCALES DE EUSKADI, ¿CUÁLES DE LOS SIGUIENTES SON PRINCIPIOS RECTORES DEL RÉGIMEN LOCAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI?**
- 6a) El principio de subsidiariedad y el de suficiencia financiera.
 - 6b) El principio de pluralismo político y el de imparcialidad.
 - 6c) El principio de transparencia y el de igualdad entre mujeres y hombres.
 - 6d) El principio de autoorganización y el de proximidad a la ciudadanía.
- 7 SEGÚN LA LEY 2/2016, ¿CÓMO DEBE MATERIALIZARSE LA TRANSFERENCIA DE COMPETENCIAS PROPIAS DE LOS TERRITORIOS HISTÓRICOS A LAS ENTIDADES LOCALES TERRITORIALES?**
- 7a) Mediante Ley.
